


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Larramendiren *El imposible vencido Arte de la lengua
Bascongada (1729) gramatikaz : bizkaiera eta beste
zenbait ezaugarri***

Euskal Ikasketak
2019/2020 Ikasturtea

Saila : Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Egilea : Joana Camiruaga Garcia

Tutorea : Blanca Urgell Lázaro

Aurkibidea

0. Abstracta	3
1. Sarrera	3
2. Helburuak eta metodologia	4
3. Larramendiren lanen garrantzia.....	6
4. <i>Status quaestionis</i>	7
5. Larramendiren gramatikari buruzko zenbait zehaztasun	8
5.1. Larramendiren terminologia	8
5.1.1. Bigarren pertsonak adierazteko moduak	8
5.1.2. « Simple » eta « compuesto ».....	9
5.1.3. « Promiscuo ».....	10
5.2. Irregularitasunak ordenan	10
5.3. Bizkaiera izendatzeko moduak eta dialektoen arteko ordena	11
6. Corpusaren azterketa	14
6.1. Aditz laguntzaileak.....	14
6.2. Aditz morfologiako bokal bikoitzez	22
7. Zenbait formaren eremu dialektalaz	23
8. Ondorioak	25
9. Bibliografia.....	28
10. Corpora.....	30

0. Abstracta

Lan honen bidez, Larramendiren *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada* (1729), argitaratu zen lehen euskal gramatikak biltzen dituen bizkaierazko aditz laguntzaileak aztertzea da nire helburua. Horretarako, corpus bat bildu, bizkaierazko aditz formak aztertu eta jatorri izan zitezkeen balizko iturrien inguruan jardungo naiz, gehien bat idatzizkoetan. Hala ere, ahozko lekukotasunen aztarnarik ere aurkitu dut eta, horri jarraiki, forma batzuen kokapen geografikoan ere hurbilpen xume bat egiten saiatu naiz. Bidenabar, zenbait terminologia xehetasun eta bestelako datu ere eskainiko ditut, hainbat ordena irregulartasun eta zehaztasunen berri emateko asmoz.

1. Sarrera

Izugarrizkoa da Manuel de Larramendik izan zuen eta duen garrantzia euskalaritzan eta euskarari, oro har ; izan ere, historikoki gutxietsia izan den hizkuntza honen gramatizazioa osatu zuen lehen pertsona izan zen. Mugarri oso esanguratsua ezarri zuen euskararen historian, zeina periodizazioan ere zedarriztat hartu izan den. Muga hori gaurkoan aztergai dugun *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada* (1729) gramatikarekin eta *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin* (1745) hiztegi famatuarekin ezarri zuen. Larramendik hain gutxietsirik zegoen euskara zulotik atera, eta honek zuen benetako balioa erakutsi zuen hau ikasteko eta idazteko beharrezkoak ziren tresnak sortuz.

Arbuiatuak izan dira Larramendiren izugarritzko lanak, asmakuntzat harturikoak bere neologismo ugarien ondorioz. Gaurko honetan, aipatutako gramatikako bizkaierazko osagaiak aztertzeke asmoz nator, beste zenbait autoreren atzetik eta azken landu duen Blanca Urgellek (2016b) egindako lanari jarraipen bat eman nahiz. Helburua, beraz, asko aztertu ez den lan honetako bizkaierazko lekukotasunak lantzea eta hauen iturri posibleez mintzatzea izango da. Arreta nagusia aditz morfologian jarriko dut, honek dituen berezitasunetako batzuk erakutsi eta berak erabilitako iturriak izan bide zirenetara hurbiltzen saiatzen naizelarik. Horrez gain, lana egiten joan ahala ikusi ditudan zenbait berezitasunez ere jardungo naiz, hala nola formak ematerakoan erakusten dituen ordena irregulartasun batzuek edota baliatzen duen terminologiaz, nahiz eta ez zen nire hasierako helburua izan.

Obra honek duen garrantzia agertzea ere oso garrantzizko iruditu zait, bada, urte

askoan zehar ilunpean egon zen ahazturik. Hori horrela, merezi duen balioa eman beharko genioke egin zuen egundoko beharrari, eta zer hobeto horretarako, bere lan hauetan arreta jarri eta ulertzen saiatzea baino, ez baitzen kontu xamurra izango horrelakorik egitea aurrenekoz.

2. Helburuak eta metodologia

Lana egiten hasi aurretik behar-beharrezkoa zait jarraitu dudan metodologiari buruz zenbait zehaztapen ematea, eta horrekin batera, helburuak eta jarraitu dudan ibilbidea azaldu eta izan ditudan zailtasunak azpimarratzea.

Corpusa osatzeko, gramatika bere horretan hartu eta bizkaierakoa zen edo izan zitekeen guztia biltzeari ekin nion, bai taulak osatuz eta bai oharrak hartuz. Gramatika osoaren bizkaierazko lekukotasunak bildu nituenenean, ohartu nintzen zeinen luzea zen eraiki nuen corpusa eta, hori ikusirik, atal batzuk azterketatik kanpo utzi behar izan nituen. Hasiera batean, aditz sail guztia aztertu nahi izan nuen, baina hori ere izugarri luze egingo zitzaidalakoan, aditz trinkoak albo batera utzi eta aditz perifrastikoak aztertzeko erabakia hartu nuen. Hori horrela, lehen zatiko hirugarren kapitulutik (Larramendi 1729 : 42) aurrera abiatu eta zazpigarren kapitulura (ib. 150) arteko lekukotasunak hartu ditut kontuan (42-151 orrialdeak) .

Bost zutabeko taulak osatu ditut : ezkerretik hasita, lehenengo zutabea aditz argumentuen zehaztapena egiteko baliatu dut (pertsona, kasu marka eta numeroa). Bigarren zutabea Larramendik berak ematen duen aditz partizipioa dugu eta, honi jarraiki, forma gramatikala. Laugarrenean, autoreak ematen duen gaztelaniazko itzulpena ekarri dut eta, azkenik, taulako eskuin muturrean, « bestelako testuak » izeneko zutabe bat txertatu dut. Zutabe honetan, Larramendik gramatikan darabiltzan formak banan-banan *Euskal Klasikoen Corpusean* bilatu eta batetortzeak aurkitzen saiatu naiz. Larramendi baino lehenagoko lekukotasunetan oinarritu naiz, ondorengoak alde batera utzirik, nahiz eta hurbilekoak izan. Aipatu beharra dut atal honetan txertatutako autore zaharren formak grafia gaurkotuan daudela, bada, grafiak ez du azken emaitzan eragiten.

Taulen zenbakitzea ere ez da gauza erraza izan. Larramendik ematen dituen jatorrizko izenburuak oso luzeak diren aldetik, bai irakurlearentzat eta bai niretzat ahalik eta errazen eta erosoan izateko, zenbakitze sistema bat baliatzea erabaki dut

Larramendik berak darabilen ordenari eta sistemari jarraiki. Hiru zenbakiz¹ osaturiko izendapenak egin ditut: lehenengo zenbakia taulari dagokio. Bigarrenak numeroa adierazten du (1 singularra eta 2 plurala) eta hirugarrenak denbora (1 orainaldia eta 2 lehenaldi burutugabea). Hona hemen corpuseko adibide bat :

1.1.1. Taula (68) (1. taula, singularra eta orainaldia)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>dot</i>	yo lo como	<i>dot</i> (Bet, Kap)
2s-erg 3s-abs		<i>doc, don, dózu</i>	lo comes	<i>dozu</i> (Bet, Kap, Zub)
3s-erg 3s-abs		<i>dou</i>	lo come	<i>dau</i> (Bet, Kap, Zub)
1p-erg 3s-abs		<i>dógu</i>	lo comemos	<i>dogu</i> (Bet, Kap, Zub)
2p-erg 3s-abs		<i>dózue, dozute</i>	lo comeis	<i>dozue</i> (Barr)
3p-erg 3s-abs		<i>dóüe, doute, dave</i>	lo comen	<i>dabe</i> (Laz, Bet, Kap, Zub)

Larramendiren gramatikako aditz perifrasieta agertzen diren bizkaierazko formez osaturiko corpus hau lanaren amaieran txertatu dut eranskin gisa.

Larramendiren biografia edota testuingururik ez dakart gaurko honetan, oso pertsona ospetsu eta ezaguna den aldetik, irakurleari lan hau oso errepikakor ez suertatzeko gehien bat. Ekarri dakart, ordea, Larramendik eta bere lanek euskarari eta euskalaritzari izan zuten garrantziaren eta eraginaren informazioz (§ 3), ez baitzen makala izan euskarari eman zion bultzada. Horrez gain, lan honen inguruan egin izan diren ikerketez mintzatuko naiz (§ 4), gaiaren azterketa zertan dagoen eta bide horretako zein puntutan hartu dudak jakinarazte aldera.

Nahiz eta nire helburua bizkaierazko formak aztertzea den, gramatikaren azterketa aurrera joan ahala azaltzeke zeuden beste zenbait kontuz ohartu nintzen. Hori horrela, helburu nagusitik desbideratu eta gramatikaren inguruan ohar eta zehaztasun

¹ Aginterako taula bat ere sartu dut nire corpusean, zeinari lau zenbakiz osaturiko izena jarri diodan agintera dela bereiztako : 1.1.1.2. taula.

batzuk ematera bideratu dut lanaren hasierako zati bat. Lehenik, egun darabilgunetik kasu batzuetan aski urrun dagoen Larramendiren terminologiari atal bat eskaintzea erabaki dut, bertan zenbait kontzeptu argitzeko asmoz. Jarraian, gramatikan zehar erabili ohi duen ordena sisteman sumatu ditudan erregulartasun batzuek ere mintzatuko naiz. Horrez gain, bizkaiera aztertzea xede dudan aldetik, ezinbesteko iruditu zait hau izendatzeko darabiltzan formulak zehaztea, ez baitarabil beti sistema bera.

Hauek azalduta, ziurragoa izan da nire benetako helburua lortzea, hau da, Larramendiren gramatikako bizkaierazko aditz laguntzaileak aztertu eta hauen inguruko zenbait zehaztasun ematea iturri posibleak zein izan zitezkeen asmatzen saiatuz. Gehien bat idatzizko iturrietan oinarritu naiz, baina hauetan ez eze, ahozkoak izan bide zirenetan ere arreta jarri dut. Azterketa egiten aurrera joan ahala, forma batzuk dialektalki eremu txikiagokoak direla ikusi eta hurbilketa txiki bat egin nahirik, atal labur eta xume bat dakart honen inguruan. Azkenik, lan osoan zehar ateratako ondorioak aurkeztu eta amaiera emango diot azterketa honi, lan honen luzeera mugatua baita.

3. Larramendiren lanen garrantzia

Altzibarrek (1992) dioskunez, gipuzkerazko literatura, gaurkoan aztergai dugun Larramendiren *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada* (1729) gramatikarekin eta *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin*² hiztegi famatuarekin (1745) eta Kardaberaz eta Mendibururen lan ugariekin loratu zen. Nolabait esateko, hauek izan ziren gipuzkera idatziaren oinarriak jarri eta hizkuntza eraberritu eta apainketaren ondorengo izan zirenak.

Gramatika honek euskara lehenbizikoz deskribatu eta arautu zuen eta, gainera, ez soilik gipuzkeran: bizkaieran eta lapurteran predikatzeko eta idatzeko jarraibideak ere eman zizkigun Larramendik. Euskara idatziaren berritze hori ez zen soilik hiztegiaren eraginagatik izan, hizkuntzarekiko jarrerak ere aldaketa nabarmena pairatu zuen. Larramendik gaztelaniari aurre egin zion, honen agindupeko izateari utzi eta euskara balioztatzen saiatu zen, honek zuen garrantzi eta edertasunaz konturatuz (Sarasola 1986 : 205 apud Altzibar 1992 : 326). Euskara idatzian ez ezik, jendaurrean mintzatutako euskararen ere eragin handia izan zuen autoreak. Moglek aipatu zuenez, Larramendiren ondoren elizgizonak euskara aipainagoa ikasten eta mintzatzen hasi

2 Hemendik aurrera *Hiztegi Hirukoitz*.

ziren.

Euskararen gramatizazioa ekarri zuen, beraz, eta horrek euskara aro berri batean sartu zuen. Lakarrak (1997b : 516) egindako periodizazio proposamenean muga urtetzat 1745. urtea dugu, zeinarekin Euskara Zahar eta Klasikoaren (1600-1745) eta Lehen Euskara Modernoaren (1745-1890) arteko muga zehazten duen. Lehenengoz, euskara arauturik zegoen, nahiz eta arinago ere argitaratu ezin izan ziren saiakerak eta gramatika lanak egon ziren. Hala ere, Larramendi izan zen euskalki guztietako³ datuez hornitutako gramatika bat egin zuen lehena eta horrek duen garrantzia benetan azpimarragarria da.

Aipatu beharra dago, ordea, Larramendiren lanei ez zaiela eman merezi izan duten balioa nahiz eta euskararen lehen tresna linguistikoak izan. Alderatu izan da honen izugarrizko lana eta benetan azpimarratu eta gogoratua izan beharko litzateke; izan ere, euskara ikasi ahal izateko lehen tresnak egin izanaz gain, lekukotasun historiko bezala ere balio handia dute bertan bildutako datuek: ahozko hizkuntzatik hartuak izan diren lekukotasunak asko dira, lehen agerpen edo hapaxak ere ageriz.

4. *Status quaestionis*

Azterketa honi heldu baino lehen, beharrezko da gramatika honen inguruan egin diren azterketez jardutea, gaia zertan dagoen ikusi eta lan honek aztertze ibilbide horretan izan duen lekua zein den jakiteko.

Oyharçabalek (1989) Larramendiren gramatika aurreko euskal gramatika tradizioa aztertu zuen. Kaleratu zuen azterketaren bidez, euskal tradizioan egon ziren aurretiko gramatizazio saioen berri ematen digu. Lan honetan, Oihenartek *Notitia Utriusque Vasconiae* (1638) lanean euskal gramatikari atal bat eskaini ziola, Pouvreaux eginiko gramatika bat ere egon zela (XVII. mendearen bigarren erdialdean), Bidegaraireren *Rudimens Basques*⁴ (c. 1675), Oiangurenaren *Arte Cantabrico* (1715) edota D'Urthe-
ren *Grammaire Cantabrique Basque* (1712) lan guztietan euskal gramatika landu zela erakusten digu.

Oyharçabalez geroztik, Gómez-ek (1991) hizpide dugun gramatika eredu klasiko edo grekolatindarraren tradizioko bestelako gramatikekin erlazionatu zuen. Larramendik

3 5.4. atalean zehatzago aipatuko dudanez, Larramendik hiru euskalki nagusi bereizten zituen : gipuzkera, bizkaiera eta lapurtera (Larramendi 1729 : 12-15).

4 Zoritxarrez, osoki galduak ditugu Bidegaraireren hiztegia eta gramatika. Nahiz eta ez ziren argitaratu, Nafarroako Erreinuako erregistroei (1675-1679) esker hauek argitaratzeko asmorik izan zuela dakigu (Oihartzabal 1989 : 64).

gramatika egiteko esku artean izan zituen eredu posibleak aurkitzen saiatu zen, euskarari aurretik egon izan ziren lanetatik hasi eta tradizio erromanikoko edota gramatikagintza grekolatindarreko ereduera helduz. Horretarako, hizpide dugun gramatika lehenagoko gramatika lan batzuekin erkatu zuen, berdintasun eta ezberdintasunak ikusteko asmoz. Era berean, Larramendiren gramatikak izan zuen garrantzia azpimarratu eta, nola ez, geroago izan zuen eragin apartari ere keinu bat egin zion lan horretan.

Gramatikaren azterketari heldu dion azkena, Urgell izan da (2016b), zeinak *Hiztegi Hirukoitza* jorratuz lortu zuen trebezia eta jakintza hori baliatuz, izenburuak dioen bezala⁵, Larramendiren gramatikako formek zuten fidagarritasunaren inguruan jardun zen. Ildo horretatik, gramatika honen euskalkien formen lortzeko bideei eta noski, iturri posibleei ere arreta berezia eskaini zien. Batez ere lapurterazko iturriak landu zituen Urgellek (2016b), hala ere, bizkaieran ere pixka bat murgildu zen iturri idatzietako zenbait kidetasun eta itxuraz analogikoki sortuak zitezkeen formak seinalatuz. Beraz, forma gramatikalen azterketan barneratu zen zuzen-zuzenean, eta sarreran aipatu bezala, bere bidea jarraitzeko asmoz dakart lan hau.

5. Larramendiren gramatikari buruzko zenbait zehaztasun

5.1. Larramendiren terminologia

Gorago aipatu dugunez, aztergai dugun gramatika hau izan zen euskaraz egin zen lehen gramatika lan marduletakoa. Euskara Zahar eta Klasikoaren eta Lehen Euskara Modernoaren arteko muga ezarri zuelarik, bere hizkera ez da gaur egungoa bezalakoa inondik inora ere. Horrek, terminologian gaur egun erabiltzen ez diren edo gaur egun ez bezala erabiltzen diren terminoak agertzea dakar. Lan baten azterketa egiterakoan egin behar den lehenengo gauza lan horretan adierazi nahi dena ulertzea da. Hori horrela izanik, azterketa egiten hasi baino lehen, hurrengo ataltxo honetan konprenitzeko zailago egin zaizkidan termino horietako batzuk argitzea gustatuko litzaidake, esan nahi dena ulertu ezean, ez ginateke-eta inora joango.

5.1.1. Bigarren pertsonak adierazteko moduak

Jakina da euskaraz singularreko hiru bigarren pertsona ditugula, hitanoko *hi*-ren forma maskulino eta femeninoa eta *zu* forma orokorra. Larramendik hiru hauek

5 « On the reliability of Larramendi's evidence » (2016b).

bereizten ditu, eta bereizketa hori egiterako orduan gureaz bestelako terminologia darabil : latinetik harturiko *prima secundae* 'bigarren lehena', *secunda secundae* 'bigarren bigarrena' eta *tercia secundae* edo *tercera secundae* 'bigarren hirugarrena' terminoak hain zuzen ere. Larramendik berak argitzen du termino hauen esanahia :

Siguense aora las seis Conjugaciones de la segunda persona ; y para ponerlas por su orden observe, que el Bascuenze, como queda ya notado, tiene tres pronombres de segunda persona. El primero es de modo familiar, y menos cortes, que es hi, hic ò eu, euc : y este aplicado al hombre tiene conjugacion aparte, y aplicado à la muger otra conjugacion distinta, y asi contiene dos personas segundas. El segundo es del modo mas cortés, ò no tan familiar, y tiene su conjugacion particular : y como cada persona tiene dos conjugaciones, una de regimen singular y otra de plural, salen seis conjugaciones relativas á la segunda persona. Pues para distinguirlas entre si, usaremos de los nombres de prima secundae, secunda secundae, tertia secundae, que explican muy bien esta distincion como se verá luego (Larramendi 1729 : 98).

Hortaz, *Prima secundae* darabil *hi*-ren forma maskulinoa adierazteko, *secunda secundae hi*-ren forma femeninorako eta azkenik, *tercia secundae* edo *tercera secundae* bigarren pertsonako *zu* izenordaina lantzeko.

Terminologia honen agerpen historikoei dagokienez, *tercia* eta *prima* bezalakoak erlijioan erabiliak izan dira errezoen egiteko ordena adierazteko ; izan ere, otoitz egiteko ordu kanonikoak deritzenak bereizten dira. Euskaraz, Harizmendik *Ama birjinaren ofizioa*-n (1658) eta Pierre Argaignarats-ek *Deboten brebiarioa* (1665) lanean otoitz guzti hauek dakartzate eta, noski, *Prima* eta *Terzia* izenburudunak ere bai. Larramendik egin duen sailkatze honetarako, dakigularik, ez du autore batek ere erabili lehenago.

5.1.2. « Simple » eta « compuesto »

« Simple » eta « compuesto » esaten duenean, gaur egungo aditz forma analitiko eta sintetikoei erreferentzia egin nahi die, hau da, bere « simple » trinkoa edo analitikoa izango litzateke eta « compuesto » perifrastiko edo sintetikoa. Jakina denez, Larramendik eta geroko beste zenbait gramatika klasikoaren ildokok erregulartasuna

onesten eta balioesten zuten. Geroago helduko zen aditz trinkoen aberastasun eta edertasuna estimatzea eta honen balioestea. Larramendik argi uzten digu berak edertasuna erregulartasunean ikusten duela, eta aditz perfrastikoak trinkoen gainetik jartzen dituela (Larramendi 1729 : 46).

5.1.3. « Promiscuo »

Real Academia Española-ren hiztegian honako « promiscuo »-ren bi adiera hauek ematen dira :

1. Adj. Mezclado confusa o indiferentemente.
2. Adj. Que tiene dos sentidos o se puede usar igualmente de un modo o de otro, equivalentes.

Jakina da Larramendik *Diccionario de Autoridades*-a (1737) hartu zuela oinarritzat bere hiztegia osatzeko ; hortaz, gauzak argitzearren, *Diccionario de Autoridades*-era jo eta RAE-ko lehen adiera hori bere horretan ageri dela ikusi dut.

Nola ez, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzera* ere jo dut honen inguruko argitasunik aurkitzera : « Promiscuo, *carnasia*. Lat. Promiscuus » (Larramendi 1745 : 199).

Hona hemen lanean ematen den adibide bat :

Los que usan el primer dialecto igualmente dicen *jaten nac*, que *jaten nauc*, y asi ay otros usos promiscuos, que debieran separarse en estas, y en las siguientes conjugaciones (Larramendi 1729 : 142).

Bizkaieran *nac* edota *nauc* formak erabiltzen direla aipatzen du : nahasi iruditzen zaio bikoiztasun hori eta hauek bereiztu behar litezkeela aipatzen digu. Badirudi, beraz, « promiscuo » dioenean formez edo hauen erabilera nahasiez hitz egiten ari dela, hots, ez analogiaz sorturiko formez.

5.2. Irregulartasunak ordenan

Corpusa biltzerakoan ordenari dagokion irregulartasun batzuez ohartu naiz.

Corpusean, normalean, bigarren pertsonako hiru formen paradigmak dakartza (ikus 3, 4 eta 5 taulak), baina kasu batean ez du *hi*-ren forma femeninoa adierazten : 11 eta 12 zenbakidun tauletan hain zuzen ere. 11. taulan *hi*, *heu* izenordain maskulinoaren paradigmak ditugu eta, 12. ean, ordea, *zu*, *zeu*-ra egiten du salto, *hi*, *heu*-ren forma femeninoa aurkeztu gabe.

Horrez gain, paradigmak emateko ordenan beste ezberdintasun bat ere igarri dut : normalean, bigarren pertsonetako izenordain baten singularreko eta pluraleko orainaldia eta lehenaldia dakartza bata bestearen atzetik (ikus 3, 4 eta 5 taulak). 10, 11 eta 12 tauletan, ordea, 2. pertsonako izenordain guztiei dagozkien singularreko paradigmak batera aurkezten ditu eta, gero, pluralekin bera egiten du. Hau da, ezberdinak diren pertsonen forma singular guztiak ematen ditu lehenik eta gero pluralak, saltoak eginez pertsona batetik bestera. Beraz, ordenari dagokion irregulartasun hori oso argia da, gramatikan zehar beste inon egiten ez duena.

5.3. Bizkaiera izendatzeko moduak eta dialektoen arteko ordena

Jakina da Larramendik hiru dialekto lantzen dituela bere gramatikan : berea den gipuzkera, bizkaiera eta nafar-lapurtera. Gainera, hirurak bereizten ditu testuan zehar, baina ez beti modu berean. Lan honetan bizkaiera aztertzea helburu dudan aldetik, ezinbestekoa da bizkaiera adierazteko dituen bideak aztertu eta azaltzea ; izan ere, jada lehen gainbegiratzean konturatu nintzen modu bat baino gehiago zerabiltzala bizkaiera izendatzeako. Hori horrela, horri helduko diot atal honetan.

Larramendik dialektoei atal bat eskaintzen die bere gramatikako sarreran, « III De los Dialectos del Bascuenze » izenburupean (Larramendi 1729 : 12-15). Bertan, hiru dialekto bereizten ditu : gipuzkera, bizkaiera eta nafarrera edo lapurtera. Azken bi hauek bat bera direla dio, baina beste dialektoekiko nahikoa nahaste duela (Larramendi 1729 : 12).

Corpusa lantzerakoan ikusi ditudan izendapen ezberdinekin taula bat egin dut adibideak erosoago ikus daitezen eta, horrela, aurkitu ditudan hiru izendapen argiak bereizi ditut :

Izendapena	Testuko aipamenak	Gramatikako orrialdea
	« asi el Bascuenze tiene el	(Larramendi 1729 : 12)

<i>Dialecto del Señorío</i>	dialecto (...) del Señorío »	
	« En el dialecto del Señorío »	(Larramendi 1729 : 71, 77)
	« En el dialecto del Señorío »	
<i>Bizcaíno</i>	« así el Bascuense tiene el dialecto (...) Bizcaíno »	(Larramendi 1729 : 12)
	« ò el Bizcaíno »	(Larramendi 1729 : 13)
<i>Primer dialecto</i>	« los que usan el primer dialecto »	(Larramendi 1729 : 142)
	« Es el mismo, que en el primer dialecto »	(Larramendi 1729 : 144)
	« como en el primer dialecto »	
	« Es como en el primer dialecto »	(Larramendi 1729 : 146, 177)
<i>El primero</i>	« Es casi como el primero »	(Larramendi 1729 : 173)
<i>Dialecto 1</i>	« Dialecto 1 »	(Larramendi 1729 : 68, 89, 93, 96, 99, 102, 104, 106, 109, 111, 114, 119, 122, 124, 127, 130, 133, 137, 141, 146, 148, 150, 166, 173, 176, 180)

Ikusi dugunez, « El dialecto del Señorío » darabil bizkaiera adierazteko, berak esaten baitu zuzen-zuzenean : « del Señorío, ò Bizcaíno » (Larramendi 1729 : 12). Bigarrenik, « Bizcaíno » izendapena, aldiz, aipamen horrexetan bakarrik agertzen da, beste inon ez. Horrez gain, « primer dialecto » eta « el primero » ere badarabiltza kasu batzuetan. Azkenik, « Dialecto 1 » da forma erabiliena (27 agerraldi guztira), zeina betiere paradigmaten hasieran agertzen den.

Hala ere, badaude aipatzen dituen euskalkiak izendatzeko forma orokorragoak ere ; adibidez, « los otros dialectos », « los otros dos dialectos » edota « varios dialectos » bezalakoak.

Beste zenbait kasutan ez du dialektoak izendatzeko formularik erabiltzen, ezta bereizketarik ere egiten. Bata bestearen ondoren jartzen ditu, gehien-gehienetan ordena bera erabiliz : lehenik gipuzkerazko forma, gero bizkaierazkoa eta azkenik lapurterazkoa. Ordena izango litzateke, beraz, adibideen arteko bereizketa egiteko erabiltzen duen formula. Hurrengo taula honetan oso argi ikusten da ordena hori jarraitzen duela (Larramendi 1729 : 206) :

Orainaldia	
<i>Jaten</i>	<i>aldet – dot⁶, dut.</i>
	<i>aldec, en, dezu – doc &c.</i>
	<i>aldeu, aldou, aldu.</i>
	<i>degu, dogu, dugu.</i>
	<i>dezue, dozue, duzue.</i>
	<i>deüe, doüe, dute.</i>

Paradigmetan zerrendatzeaz gain, testuan zehar ere erruz ematen ditu horrelakoak. Honako adibidean lehenik bizkaierazko formak eta gero lapurterazkoak ematen ditu :

1. « Lo mismo en los otros dialectos, *ecárten-déutsut* singular, *ecárten déutsudaz* plural ; *ecárten-dárotzut* singular, *ecárten-dározquitzut* plural » (Larramendi 1729 : 290).

Hala ere, ez du beti ordena bera jarraitzen ; agian, Larramendi edota inprentako langileen nahaste txikien ondorio diren salbuespenak daude testuan zehar :

2. « *játen-dút, dét, dót, játen-dézu, dózu, dúzu* » (Larramendi 1729 : 64).

Bigarren adibide honetan ikus dezakegu lehenik lapurteratzat ematen duen forma dakarrela. Hurrengo, *dét* gipuzkerazkoa ageri da eta, azkenik, bizkaierazko *dót*. Bigarren pertsonakoak ematen dituenean, ordea, lehenik gipuzkerazkoa litzakeena (*dézu*) ematen du, bigarrenik bizkaierazkoa (*dózu*) eta azkenik lapurterazkotzat hartu dudana (*dúzu*), aipatu dugun goiko ordena hori jarraituz.

Hirugarren adibideko *det, dot, dut* adizki segidan gipuzkera-bizkaiera-lapurtera ordena jarraitzen da goiko adibideetan bezala. *Nuen, nevan, nuan* segidari dagokionez, ordea, ez dago horren garbi : neban forma ez nuke lapurterazkotzat hartuko. Hala ere, gipuzkera-bizkaiera ordena jarraitzen da hasieran.

6 Letra lodiz nabarmendu ditut bizkaierazko formak gainontzekoetatik hobeto bereiztearren.

3. « *jan-det, dot, dut (...)* *jan-nuen, nevan, nuan* » (Larramendi 1729 : 64).

Hurrengo bi adibideetan ere, ordena irregulartasunak ikus ditzakegu :

4. « *jaten-oi-dot, oi-dut ; jaten-oi-nuen, oi-nevan* » (Larramendi 1729 : 199).

Laugarren adibide sorta honetako orainaldiko formetan bizkaiera dugu lehenik eta lapurtera bigarrenik, ohiko ordena jarraituz. Lehenaldikoetan, ordea, lehenik lapurterazkoa eta bigarrenik bizkaierazkoa ageri da.

5. « *jaten-oi-ditut, oi-dodaz ; jaten-oi-dizut, oi-deutsut, oi-darotzut, &c.* » (Larramendi 1729 : 199).

Bosgarren adibidean, baina, lehenik berarentzat forma nagusia dena eman du : gipuzkerazkoa. Horri jarraiki, beste dialektoetatik aldentzen den bizkaierazkoa. Jarraian, hiru dialektoetan bereizten diren formak dakartza gipuzkera-bizkaiera-lapurtera ordena jarraituz.

6. Corpusaren azterketa

6.1. Aditz laguntzaileak

Larramendiren gramatikako bizkaieraren inguruan ezer gutxi dakigu. Blanca Urgell (2016b) dugu aztergai dugun gramatikako euskalkietako formei arreta jarri dien bakarra eta, aipatu bezala, bere bidea jarraitzeko asmoz dakart azterketatxo hau, kasu honetan bizkaierazko formen inguruan zerbait gehiago argitu nahiz.

Larramendik gramatikaren hitzurre edota azalpenetan ez digu iturriei buruz ezer argitzen. Esan bezala, dialektoen inguruan soilik mintzatzen da gramatikan, gipuzkeraz gain, bizkaiera eta lapurtera ere ekarriko dituela aipatuz. 1745eko *Hiztegi Hirukoitz* famatuan ere bizkaierazko iturriei buruz ezer gutxi dakar, katexima anitzi aipamen labur bat ezik :

Fuera destes Libros, se han impresso varios Cathecismos, asi en Bizcaya, como en Guipuzcoa, y Navarra ; pero con poca atencion à la pureza del Bascuence y a

su Ortografía (Larramendi 1745 : XXXV).

Urgellek (2016b : § 4) zehazten digun bezala, *Hiztegi Hirukoitzean* eta *Corografía o descripción general de la muy noble y leal Provincia de Guipúzcoa* (1754) lanetan dioenez, bizkaierazko lan bi ezagutu zituen : lehenengoa, *Refranes y Sentencias* (1596) lan anonimoa dela baieztatu zuen Mitxelenak (1970). Hiztegia inprimatu eta gero heldu zen Larramendiren eskuetara eta ikusirik zeinen baliotsu zen, *Hiztegi Hirukoitzaren* amaieran txertatutako « suplemento » deritzona egin zuen lan anonimo horretan aurkitutako formak gehituz. Bigarrena Arzadunen (1731) dotrina litzake, *Corografía de Guipuzcoa*-n (1754) askoz ere beranduago aipaturikoa eta, nolana ere, gramatika idatzi eta gero argitaratua (1728 vs. 1731).

Urgell (2016b : § 4) Larramendik gramatikan erabili ahal izan zituen iturriak zein izan zitezkeen bilatzen saiatu zen eta iturriak lortzeko lau bide posible plazaratu zituen, batzuk idatzizkoak eta beste batzuk ahozkoak.

Idatzizko lanetan Juan Pérez de Betolazaren (1596) lana, *Viva Jesus* (c. 1649), Martin Ochoa de Kapanaga (1656) eta Nikolas Zubiaren (1691) dotrinak ezagutu ahal izan zituela proposatu zuen.

Horrez gain, Urgellek (2016b), Larramendik Sebastian Antonio Gandara idazle gernikarrarekin karta bidez izan zuen harremanaren lekukotasunak (1763) ere kontuan hartzen ditu, zeinetan bizkaiera oso txukunean mintzaten den (1763 ; Altuna & Lakarra 1990 : 39-40 apud Urgell 2016b : § 4). Honek erakusten du Larramendi garai honetan bizkaiera aski txukunean moldatzen zela, baina, hala ere, gutun hauek askozaz ere berantiaragoak diren aldetik, ez dugu inolako bermerik gramatika idatzi zuenean ere horrela zela esateko.

Bestalde, Loiolan egonaldirik egin zezakeen gramatika idatzi aurretik, nahiz eta, jakina denez, Loiolara 1734an joan zen bizitzen. Lehenago egonaldirik egin izatekotan, posible zatekeen Larramendi mendebaldeko eremu euskaldunetara mugitu izana josulagunekin batera eta aukera hura baliatu izana bertako hiztun bizkaitarren ahozko datuak biltzeko. Amaitzeko, Salamankan egin zuen denbora ere kontuan hartzen du, oso posible zatekeen-eta bertan hainbat bizkaitarrekin harremanetan egon izana. Hala ere, Urgellek (2016b) plazaratu zituen hauek hipotesiak baino ez dira, ez baitugu hauen baieztatze euskarririk momentuz.

Atal honetan, bizkaierazko formak aztertu eta balizko iturri idatzi izan litezkeen lau autorerengan jarriko dut arreta nagusiki, Urgellen proposamenarekiko aldaketa batekin : *Viva Jesus* (c. 1649) alderatzea erabaki dut, bada, ez dut denborarik izan honetako formak behatu eta erkatzeko. Urgellek aipatzen dituen lanei, ostera, beste bi erantsi dizkiet : Lazarraga eta Barrutia. Biak ere biak eskuizkribu pribatu eta, horregatik, ezezagunak ziren Larramendiren garaian, baina hurrengo eskaintzen digute : besteek ez bezalako kokapen dialektalak, Larramendik zein hizkeratako hiztunen lekukotasunak erabili bide zituen jakiteko, baldin eta iturri idatzirik baieztatu ezinagatik balizko ahozko iturriak baliatu beharko bagenitu. Lazarragaren eta Barrutiaren eskuizkribuetan ageri diren zenbait forma Larramendiren gramatikakoekin bat datozen aldetik, aukera ederra ikusi dut eremu dialektal ezberdinetakoak izan zitezkeen adizki batzuk sailkatzen saiatzeko. Hau da, Larramendiren lekukotasunek izan zezaketen hedapen handiagoa erakusteko baliagarri lirateke, aski urrun geratzen delarik Urgellek (2016b) proposatutako beste idatzizko iturri posibleetatik. Hori horrela, forma ezberdinen aldakortasun dialektologikoan kontrastea egite bidera, nire ikerketan aintzat hartzea erabaki dut.

Oso argi utzi nahi dut ez dudala adierazi nahi Lazarragaren eskuizkribua iturri izan zuenik ; izan ere, urte askoan ezkaturik egon zen eskuizkribu pribatu bat izan zen eta oso arraroa zatekeen Larramendik ezagutu izana eta are gehiago erabili izana.

Hau esanda, honako atalean paradigmaz paradigma joango naiz intereseko izan litezkeen formak azaldu eta erabilitako corpusarekiko batetortzeak aipatzen, geroago balizko iturriei buruzko ondorioak ateratzeko asmoz.

Hasteko, 1.1.1. (**edun* 3s-abs OA⁷) eta 1.1.2. tauletan (**edun* 3s-abs LA⁸) ikusten ditugun formak aski arruntak ziren eta dira mendebaldeko euskaran, orokorrak izanik eremu guztian. Hala ere, Urgellek (2016b) azpimarratu bezala, interesa duen formarik ere badago. *Dozue* forma da horietako bat, lehenagoko *dozu* formaren pluraleko berrikuntza dena : *dozu* forma oraindik pluralean ere erabiltzen zen leku batean baino gehiagotan (Urgell 2016b : § 4). *Dozue*-ren lehen lekukotasuna Barrutiarena (c. 1720 edo 1750) dugu. Hurrengoak berantiarak dira, zeinak ez ditudan lan honetara ekarri horrexegatik.

Bigarrenik, Urgellek (2016b) hirugarren pertsona singular eta pluraleko *dou*,

7 OA = Orainaldia.

8 LA = Lehenaldia.

dóüe eta *doute* forma deigarrietan jarri zuen arreta. Hori horrela, azalpenak emateko berak emandako argitasunak ekarri ditut nire testura (Urgell 2016b : § 4). *O* bokala daramaten forma arruntak 1 eta 2. pertsonakoak dira bizkaieran (*dot*, *dozu*, etab.), baina hirugarren pertsonari dagokionean *dau* bezalakoak erabiltzen dira, **dadu-* > **dau-* bilakaeraren ondorioz bokal arteko *-d-*aren erorketa pairatu eta gero sorturikoak (Urgell 2016 : 16). Urgellek (2016b) aipatzen digunez, XX. mendean Arrankudiagan *dou* forma bat lekukotu zen soilik eta, dakigularik, ez dira horrelako gehiago lekukotu 3. pertsona adierazteko (Yrizar 1992 : 212 apud Urgell 2016b : § 4). Urgellek (2016b) azalpen posible bi eman zituen 3. pertsonako forma hauek azaltzeko : Lehenik, Larramendiren bizkaierazko jakintza xumearen edo datu faltaren ondorioz, 3. pertsonako formak analogikoki berak eraiki izana *dot*-formari jarraiki. Bigarrenik, Larramendik formak aldatu izana paradigma erregular bat lortzeko asmoz.

Bestalde, *dozute* eta *doute* adibideei dagokienez, deigarria da *-te* pluralgilearen erabilera, zeina ez den mendebaldeko tradizioan ohikoa izan. Urgellek gipuzkerazko paradigmatik abiatuta Larramendik sorturikotzat jo zituen (2016b : § 4).

1.1.2. (**edun* 3s-abs LA) eta 1.2.1. taulen (**edun* 3p-abs OA) artean, Larramendik (1729 : 71-72) tartekatutako aginterako paradigma bat erantsi dut, 1.1.1.2. taula (*egin* 3s-abs OA) hain zuzen ere. Forma orokorrak direnez (*eguiç*, *eguin*, *eguizu*, *begui*) ez da harritzekoa Lazarraga zein Kapanagaren lanetan lekukotu izana.

1.2.1. taulako (**edun* 3p-abs OA) hamar formatatik hiru berandu lekukotuak dira, 2. pertsona singularrekoak zehazki (*dozac*, [*doz*]an, *dózuz* 89). Aukera faltagatik ziurrena, Larramendiren gramatika edota hiztegia baino arinagoko lekukotasunik ez dut aurkitu, *dozuz*-en kasuan lekukotasun zaharrena Kardaberazena (1762) delarik.

Aipatutako taula honetan, interesgarri diren formak 3. pertsonakoak dira : singularreko *dituz* eta pluraleko *davez* eta *dituez*. 3. pertsona singularreko *dituz* formari dagokionean, Kapanaga edota Zubiaren testuetan ere agertzeaz gain, *Refranes y Sentencias* (1596), Errodrigo Zaratekoaren eresian (1448-1468 bitartean dataturikoa baina Ibarгүйen-Cachopin-en kronikan bildutakoa (1570-1620)) eta Lazarragaren testuetan ere ageri dira horrelako pleonasmok. Izan ere, nahiz eta hizkera arkaiko guztietan *-it-* pluralgilea zen orokorra, lan hauen bidez *dituz* bezalako pleonasmok ere ageri zirela dakigu mendebaldeko hizkeretan (Mounole & Lakarra 2018 : 430). Honekin hauxe ikus dezakegu : *dituz* edo *dituez* bezalako pleonasmok nahiko orokorrak zirela

mendebaldeko euskaran ; beraz, ez da harritzekoa Larramendik ere bere gramatikan horrelakorik biltzea.

3. pertsona pluralean, ordea, berezitasun polit bat ageri da : *davez* eta *dituez* formak lekukotzen ditu Larramendik, *dituez* forma pleonastiko zaharra eta *davez* forma berria. Singularrean ez bezala, 3. pertsona pluraleko adibide hauetan aukera bi dakartza eta hau bereziki azpimarragarria da. Lehenik, bi aukera egoteak iradokitzen digu datuok ahozko iturri batetik hartu izateko aukera handia dela ; izan ere, berak erregulariki osatu izan balitu paradigmok ez lituzke eta aukera bi jarriko. Horrez gain, azpimarragarria da ere *davez*-en lehen lekukotasuna izan daitekeela Larramendik dakarren hau, zeinak, era berean, pluraleko forma berri honen sorkuntzaren datazioaren beste aztarren bat ematen digun. 3. pertsona pluraleko *dabe*-ren analogiaz sorturiko forma bat da *dabez*, beranduago *dau*-ren analogiaz sortuko den *dauz* formarekin gertatuko den antzera.

Dauz formari dagokionez, Lakarrak (1986 : 670) argi adierazi zuen geroago berrikuntza bat zela *ditu(z)* forma zaharraren aurrean. XIX. mendearen erdialdera arteko Zabalaren lekukotasuna iritsi arte, honen lehen agerraldia eta bakarra Mikoletaren *ebaguiten dausela* izan zitekeela aipatzen digu ; hala ere, errata bat izatea posible zela alderatu gabe.

Mendebaldeko eremu zabalean **edun*-en adizkien txandakatzea egon izan da. 1 eta 2. pertsonako adizkiak monoptongau egin ziren eta 3. pertsonakoak, ordea, ez. Horrela, *deban* bezalako formak aurkitzen ditugu. Larramendi baino lehenagoko *dabez* formaren lehen lekukotasuna, baina, Mogelen lanetan (XIX. mendea) aurkitu dut.

Lehenaldiko 1.2.2. taulan (**edun* 3p-abs LA) ere, *nituzan*, *ituzan* eta *zituezan* pleonasmaok ditugu, lehena Mogelen lanean lekukoturikoa, bigarrena lekukotu gabea eta azkena Kapanaga eta Zubiaren lanetan lekukotutakoa. Deigarri suertatu zait *evazá* adizkia ; izan ere, geroago helduko diodanez, lehenaldia adierazten duen *-n* morfema gabeko taulako forma bakarra da.

Taula berean, *centuzaen* forma dugu 2p-erg 3p-abs adierazteko. Forma interesgarri eta bitxia dela ikusi dezakegu gordetzen duen *-ae-* bokal multzoagatik. Hau mantentzearen zergati posible bi dakartzat :

Lehenengoa erregularitasuna adieraztea izan liteke, eta agian, 2. pertsona singularra (*centuzan*) eta hizpide dugun 2. pertsona plurala ezberdintzeko ere baliatu izan zituzkeen Larramendik. Ez da *centuzaen* lekukotu izan, eta horrek, autoreak berak

2. pertsona pluralari dagokion morfoa agerian jartzeko « berreraikitako » forma izan litekeela pentsatzera eraman nau. Hala ere, ez dut inolako ziurtasunik horrelakorik baieztatzeko.

Beste aukera posible bat ere badago, agian gertagarriago litzatekeena : Larramendik edo inprimagileak eginiko errata bat izatea, hau da, *cenduezan* jarri ordez, *cenduzaen* jarri izana ; bada, gainerako paradigmako formek *-zan* bukaera dute. Ez dut forma hau beste inon lekukotu. Yrizarren (1992) lanean ere ez da ageri ; bai, ordea, *senduesan* bezalakorik, zeina oso arrunta den Mendebalde osoan. Hau horrela balitz, azterketa honek beste errata posible bat antzeman, eta, behar izanez gero, zuzentzeko aukera eman dit.

2.1.1. taulara joaz, **edutsi* laguntzailearen forma hirupertsonaletan murgiltzen gara (1s-dat 3s-abs OA). Urgellek (2016b) argitara ekarri zuen legez, Larramendik *z* lepokariarekin dakar aditz erroa *déuztac*, *déuzut* edo *déuztee* bezalako adibideetan gramatika osoan zehar. Urgellen (2016b) aburuz, oso posible da *s* apikariaren ordez *z* lepokaria jarri izana hiperzuzenketa bat izatea. Hau da, orduko hiztun askok txistukarien arteko oposaketa galdurik izanda, forma zaharra zena uste zuena berreraikitzen saiatu bide zen Larramendi, nahiz eta jatorrizko formak txistukari apikaria eraman. Gainera, txistukari lepokaria historikoki neutraltzeko joera egon den testuinguru batean dago, *t* herskari ahoskabearen aurrean alegia (Urgell 2016b : § 4).

Larramendik dakarren lepokaridun *déuzut* formari dagokionean, ordea, Lazarragaren lanean lekukotasun bat ageri da ; hori bai, apikaridun *deusut* formak bost agerpen ditu lan berean. Hori horrela, errata bat izan zitekeela pentsatu dut.

Aurkitu ditudan lepokaridun adibideak oso berantiarrak dira, Mogelen lanetatik hasi eta ondokoak. Iturri posibleen bilaketa egiteko, noski, apikaridunak baliatu ditut, eta orduan bai, lekukotasun zaharragoak aurkitu ahal izan ditut, forma arruntak baitira : Lazarraga, Kapanaga eta Barrutiaren lanetan ageri dira horrelakoak.

2.2.1. (**edutsi* 1s-dat 3p-abs OA) eta 2.2.2. tauletan (**edutsi* 1s-dat 3p-abs LA) ere, hiperzuzenketa hori bera ageri da, beste garaiko eta lehenagoko autoreengan ez bezala. Aurrekoan bezala, gramatika baino lehenagoko Lazarraga eta Kapanagaren lekukotasunak ditugu 2.2.1. taulako forma gehienetan⁹. Lehenaldiari dagokionean, 2.2.2. taulan Larramendik erabilitako formatako bat ere ez da lehenago ez garai

9 Hitanoko forma femeneninoa den *déuztazan* eta *déuztaz* formak izan ezik.

horretatik hurbil lekukotu.

Hitanoko forma maskulinoak dakartza Larramendik 3 zenbakidun tauletan. Euskal idatzizko tradizioan zehar oso bakanak dira hitanoko forma maskulinoak, eta are gehiago femeninoak. Jakina denez, gure idatzizko tradizioaren ezaugarrietako bat homogeneotasuna da : 1900 baino lehenagoko euskal testuen %80-90 erlijio testuak dira (Urgell 2019 : 1). Haatik, hitanoko formak nekez agertzen dira erlijio dotrinetan eta horren eraginez, forma hauen oso lekukotasun gutxi ditugu. Honek ez du esan nahi, baina, erabiltzen ez zirenik. Literatur lantzat har ditzakegun Barrutia edota Lazarragaren lanetan horrelako formak ageri dira batzuetan.

Harira bueltatuz, hitano maskulinoko 3.1.1. taulan (**edutsi* 2s-dat 3s-abs OA) *déuvat* eta *déuvagu* bezalako formak dakartza, baina lekukotasun zaharretan ez dira *v*-dun forma horiek lekukotzen, soilik *deubee* eta *deubat* beranduagokoa den Mogelen lanean. Kasu hauetan *ts* afrikatua adierazten zuen <s> apikariarekin lekukotu izan dira forma hauek garai zaharragoetan (*deuse* edota *deusat* bezalakoak).

3.2.2. taulan (**edutsi* 2s-dat 3p-abs LA) hitanoko lehenaldiko forma pluralak ditugu, zeinei *-za* pluralgilea gehitzen zaien denei.

Deigarri suertatu zait 3 eta 4 zenbakidun tauletako hitanoko formen lehenaldiko formetan dagoen *-n* morfemaren gabezia ; izan ere, corpus guztiko formetan agertzen da hitanokoetan izan ezik. Alabaina, ez da hau gertatzen bestelako pertsonetan : hauetan *-n* marka ageri da beti. Ez dut horrelako formen lekukotasunik ikusi eta, hortaz, batzuk isolaturik ikusita, hasiera batean erratak zitezkeela pentsatu nuen. Aitzitik, tauletako lekukotasunak biltzen joan ahala, sistematikoki gertatzen zela ohartu nintzen. Hau horrela, zail zitekeen honelakoak Larramendiren asmakuntza izatea, horrela izan balitz, segur aski erregularitasunera joko zukeen eta. Haatik, hitanoko forma hauek osatzeko ahozko iturriren bat baliatu zuela esango nuke, aipatu bezala, ezagutu ahal izan zituen idatzizko lekukotasunen homogeneotasuna dela eta, ez bide zukeen eta testuetatik horrenbeste hitanoko forma hartu izango.

4 zenbakidun tauletako femeninoko formetan euskaran orokorra den *n* marka dago genero bereizketa hori egiteko. 4.1.1. taulan (**edutsi* 2s-dat 3s-abs OA), ordea, *-n(a)* markadun adibideez gain, *-m(a)* markadunak ere badakartza bigarren aukera bezala¹⁰. 4.1.2. taulari (**edutsi* 2s-dat 3s-abs LA) dagokionean, hitanoko forma

10 3. pertsona singularerako adizki bakarra dakar, *-n(a)* markaduna, *déun* (ez ***déum*).

femeninoak maskulinokoen berdinak direla baieztatzen du : « Se haze con las inflexiones deste mismo dialecto en la prima secundae de regimen singular, *jaten neuva*, &c. » (Larramendi 1729 : 104). Harrigarria da, bada, beste tauletan (4.1.1., 4.2.3. eta 4.2.4. tauletan) bereizketa egiten baitu. Baliteke honen interpretazioa hauxe izatea : forma horiek nekez lekukotu ahal izan ziren aldetik, datu faltak eraginez berdin utzi izana. Pluralari dagokionean, ordea, 4.2.1. (**edutsi* 2s-dat 3p-abs OA) eta 4.2.2. tauletan (**edutsi* 2s-dat 3p-abs LA) ikus dezakegunez, hitanoko forma femeninoak Euskal Herri osoan orokorra den bezala dakartza : *-n(a)* marka jarritz maskulinoetan *v* dagoen lekuan. Posible da hau hiztunen batek emandako ahozko lekukotasun bati jarraiki eraikia izatea, agian hiztunak maskulinokoen berdin egiten zuela esan zion honi. Larramendik analogikoki sortu izan balitu, agian ez lituzke maskulinoaren forma berak jarriko : erregulariki analogikoki sorturiko forma femenino pluralak baino.

Desberdintasun bakarra sumatu dut forma femenino eta maskulinoen artean : 3.2.1. taulan (**edutsi* 2s-dat 3p-abs OA) *déuvaguz* forma dugu pluraleko orainaldiko 1. pertsona pluralerako, eta femeninoan, ordea, *déunagun* dugu, ez ***déunaguz* (Larramendi 1729 : 106). Femeninoko beste forma guztiak maskulinoak bezalatsu erregulariki osatu bide dituen aldetik, errata argia dela esango nuke.

5 (**edutsi* 2s-dat) eta 6 (**edutsi* 3s-dat) zenbakidun tauletan egun oso ezagunak diren adizkiak ditugu, baina Larramendi ondoko lanetan soilik aurkitu ditut. Horrez gain, lekukotu ez diren adibideak ere baditugu taula hauetan, adibidez *guéuntsazan* edota *céutsazan*, aukera faltagatik agian.

7. tauletan (**edutsi* 1p-dat), ordea, *déuzcu*, *déuzcue*, *éuzcun*, *déuzcuz* bezalako adizki orokorrak ditugu Betolaza, Lazarraga eta Kapanagaren lanetan. Ez dira forma guztiak lekukotzen, eta lekukotutako batzuk berantiarak dira, baina hala ere, iturri posible izan litezkeen autoreen formak darabiltza.

Berdina gertatzen zaigu 10. tauletan (**edun* 1s-abs / **edun* 1p-abs) ; izan ere, lekukotzen diren forma gehienak Kapanaga, Lazarraga edota Barrutiaren testu zaharragoetan ageri dira. Aipatutako 1.1.1. (**edun* 3s-abs OA) taulako *dou* eta *dóue* formekin lotura eginez, hasiera batean asmakuntza izan zitezkeelako susmoa hartu diet *nou* edota *noüe*, baina oker nengokeen, bada, lekukotuak izan dira tradizioan zehar : 10.1.1. taulako (**edun* 1s-abs OA) *nou* 3. pertsonarako, adibidez.

Berdina pentsatu dut *noüe* formari dagokionean, *nou* formaren ildotik, hasierako

no- mantendu eta erregulartasunez sorturiko forma bat izan zitekeela. Aurreko formekin bezala, honen beste azalpen posible bat ikusi dut bilaketa egindakoan : geroago aipatuko dugunez, Arrankudiagan XX. mendean horrelako formak arruntak ziren aldetik, ikus dezakegu ez dutela zertan Larramendiren asmakuntza izan behar, ahozko beste iturri batetik hartu ahal izan zituelarik. Halere, aukera biak irekita utziko nituzke ; bada, posible da Larramendik erregulartasunez eta gero hiztun talde txiki batek bere kabuz ere sortu izana.

11.1.1. taulako (**edun* 2s-abs OA) *ou*, *ougu* edota *oute* edo *oüe* formak ere, ildo bera jarraituz sortuak izan zitezkeelako susmoa izan dut hasieran : kontuan harturik Larramendik euskara zaharrenekoak zirela uste zuen paradigma erregularrak berreraikitze saiakerak egin bide zituela, beste forma batzuekiko analogiaz sorturikoak izatea aukeratzat hartu dut hasieran. Hala ere, aurreko paradigmagan gertatu bezala, *oue* forma Arrankudiagan eta Arrigorriagan lekukotu izan da (Yrizar 1992 : 212).

1.1.1. taulako (**edun* 3s-abs OA) *dozute* eta *doue* adibideen antzera, *oute* forma lekukotugabeari dagokionean, arraro dugu *-te* pluralgilea, bada, ez zen orduko mendebaldeko formetan ageri, gipuzkerazkoetan baino. Urgelli jarraiki, gipuzkerazko paradigmekiko analogiaz sorturiko aldakitzat hartuko nuke (Urgell 2016b : § 4).

10.2.1. taulari eta 12 zenbakidun taulei dagokienean, hasierako 1.2.1. taulan (**edun* 3p-abs OA) ageri izan direnen taldeko pleonasmok dakartza, hau da, *-z* pluralgilea eta *-it-* pluralgilea batera ageri diren formak, hala nola *záitudaz*, *záituz*, *záituguz*, *gaituz*, *gozuz* eta *gaituez*. Aipatu bi taula hauek nahiko irregularrak direla argi ikusten da ; izan ere, *gozuz* bezalako formen ondoan *gaituz*-en tankerakoak ageri dira. Ahozko iturri batetik ekarri izana egiantzekoa da, beraz : argi ikusten da Larramendik ez duela inolako eskusartzerik egin paradigma erregularragoa sortzeko.

6.2. Aditz morfologiako bokal bikoitzez

Gauzak ondo bereizita egote aldera, bokal bikoitzak dituzten formen inguruko azpiataltxo bat egitea erabaki dut, bada, bokal bikoitzak dituzten aski forma interesgarriak ageri dira Larramendiren gramatikan.

Aztergai dugun corpuseko *ee* bokal bikoitza daramaten adibide guztiak 3. pertsona ergatibo pluraleko formetan ageri dira : 3p-erg 3p-abs *eveezan* (1.2.2. taula)

3p-erg 1s-dat 3s-abs *deuztee* (2.1.1. taula) eta 3p-erg 2s-dat 3s-abs *déumee* (4.1.1. taula). Hala ere, forma hauek aski ezberdinak dira beren artean :

Eveezan formari dagokionean, **(z)e-du-e-za-n* formatik dator. 3s-erg-rako *eben* darabilten lekuren bateko hiztunek plurala egiteko *-e* pleonastikoki erantsi izanaren ondorio izan zitekeen (sg. *eben* vs. pl. *ebeen*). Hala ere, Larramendik 1.1.2. taulan (**edun* 3s-abs LA) singularrerako *evan* dakar, ez *even*¹¹. Lazarragak adibidez, singularrerako *even* (Lazarraga 1567-1602 : 1152r-1152v) dakar eta, baita ere pluralerako (Lazarraga 1567-1602 : 1154v). Aipatzekoa da Yrizarrek (1992 : 155, 378, 422) Markina, Durango eta Bergara aldean *ebien* forma lekukotu zuela : hori horrela, *ebeen* bezalako pluraleko forma existitu izanaren lekukotasun ezin argiagoa da, nahiz eta ez dudan Larramendik dakarren forma lehenago lekukotu.

Bestalde, Mounole eta Lakarrak (2018 : 416) diotenez, Bizkaiko sartaldeko hizkera batzuetan $a + e > ee$ egiten zen. Horri jarraiki, *deuztee* eta *deumee* formetan hurrengoa gertatu dela pentsa dezakegu : $-ae > -ee$ egin da, geroago sinplifikatu eta *-e* geratu da. Hau da, *deuztee*-ren kasuan **deuztae > deuztee* gertatu da : oraindik sinplifikatu gabeko tarteko formak ditugu.

Hitanoko forma maskulinoetan soilik ageri dira *aa* bokal bikoitza daramatenak : 2s-erg 1s-dat 3p-abs *éutzazaa* (2.2.2. taula ; **edutsi* 1s-dat 3p-abs LA) eta 2s-erg 3s-dat 3s-abs *éutsaa* (6.1.2. taula ; **edutsi* 3s-dat 3s-abs LA). Forma hauek azalpen bakarra dute : $-ana > -aa$. Lehenago aipatu bezala, deklinabideko bokal bikoitzak nabarmenak ziren Euskara Arkaiko eta Euskara Zaharrean eta gero gutxituz joan ziren. Aditz morfologian, ordea, ez dakigu gehiago irauin zuten ; edonola ere, Larramendik entzun edo berreskuratu nahi izan zituen agian.

7. Zenbait formaren eremu dialektalaz

Taulak aztertzen joan ahala, zenbait forma dialektalki eremu murriztagokoak direla ikusi dut. Eremu ezberdintasun hori ikusirik, Larramendik erabili ahal izan zituen ahozko iturrietara pixka bat hurbiltzeko aukeraz konturatu naiz. Aipatu beharra dut hemen eskainiko dudan hau hurbilketa xume bat baino ez dela eta askozaz ere azterketa sakonagoa mereziko lukeela gai honek ; izan ere, denbora faltagatik ezinezko egin zait azterketa sakon eta behar den bezalako bat egitea. Hori horrela, zenbait forma

11 Esperoko genuke *eban/eben* eta *eben/ebeen* egitea baina, aipatu beharra dago, *eban/ebeen* egitea ere ez zitekeela ezinezko.

bereizgarri aukeratu eta hauek eremu dialektal txikiago baten kokatzen saiatuko naiz, betiere kontuan izanda Urgellek (2016b) proposatu zituen iturriak lortzeko bide posible biak : Loiolan egin ahal izan zuen egonaldian edota Salamankan egon zen denboran Bizkaiko eremu ezberdinetako ahozko iturriengandik lorturiko lekukotasunak. Honekin frogatu nahi dena da Larramendik ez zituela nahitanahiez testu idatziak erabili behar izan lekukotasunak biltzeko : aurreko atalean ikusi ditugun zenbait aldaera dialektalek, irregulartasunek edota sarri askotan forma bina emateak ahozkoatasun horren zantzuak salatzen dituzte. Bestalde, Larramendik forma batzuk testu idatzietatik hartu bide izan balitu ere, ezingo genituzke paradigmatan ageri diren forma guztiak inondik inora ere azaldu.

Interesgarri suertatu zaizkidan formetan *névan*, *evan/evá/cenduan*, *cevan*, *guenduan*, *cenduan* eta *even* (1.1.2. taula ; **edun* 3s-abs LA) aipatu behar ditut, zeinak ez diren *dot*, *doc/don/dozu*, *dógu*, etab. (1.1.1. taula ; **edun* 3s-abs OA) bezain orokorrak. Yrizarren (1992) lanera jo dut 1.1.2. taulako formak geografikoki kokatzeko laguntza eske.

Neban, *eban* edota *eben* formak, ez dira mendebalde guztian erabili, baina nahiko orokorrak ziren XX. mendean : Markina eta Bergara inguruko azpieuskalkietan eta Durangaldeko, Bermeoko, Plentziako, Orozkoko, Otxandioko edota Arratia inguruko hizkeretan ageri ziren (Yrizar 1992I : 65, 155, 253, 517-518, 533 ; 1992II : 87, 287, 355, 595, 386, 421, 449).

Zenduan, *zeban* edo *genduan* formek ere hizkera jakin batzuetara gehiago hurbiltzeko aukera ematen digute. *Zenduan* Markinako, Gernikako, Arratiako eta Bergarako azpieuskalkietan agertu izan da (Yrizar 1992I : 65, 66, 298 ; 1992II : 19, 35, 421, 449). *Zeban*, ordea, Otxandio eta Bergarako barietateetan (Yrizar 1992II : 355, 386, 402). Azkenik, *genduan* forma ere orokorra dela ikus dezakegu : Markina, Plentzia, Durangaldea, Bermeo, Gernika, Orozko, Arratia eta Bergarako azpieuskalkietan lekukotu da (Yrizar 1992I : 66, 130, 155, 201, 253, 298, 379, 517, 577, 618 ; 1992II : 19, 36, 87, 142, 386, 421, 449). Hau ikusirik, Markina edo Bergara inguruko hiztunen baten lekukotasunak izan litezke taula honetako hauek, horren orokorrak ez direnak ere bertan lekukotzen direnez gero.

Esan bezala, ez dakigu ziurtasunez Larramendik gramatika idatzi baino lehen Loiolan egonldirik egin izan zuen, baina hori posible balitz, interesgarri da bai

Bergarak eta bai Markinak Loiolatik duten hurbiltasuna. Bestalde, hau ondo letorke Larramendiren berriemailea Loiola edo Salamankan ezaguturiko josulagun mendebaldekoen bat izatearekin ere. Aurrez aurreko datu bilketaz gain, Sakamankatik gutun bidez galdetuz ere lortu ahal izan zituen gramatika osatzeko datuak.

Corpusaren azterketan aipatu dudanez, *nou*, *noüe* (10.1.1. taula ; **edun* 1s-abs OA) eta *ou*, *ougu*, *oüe* (11.1.1. taula ; **edun* 2s-abs OA) bezalako formak, lehen itxura batean Larramendiren sorkuntza izan zitezkeela pentsatu dut, baina Yrizarrek (1992 : 212, 222) XIX. mendean Arrankudiagan *nou*, *noue*, *ou* eta *oue* formak aurkitu ditu. Forma hauez gain, eraketa bereko beste zenbait forma lekukotu direla ageri da, hala nola *nousue*, *nouk* edo hirupertsonaletako *doustie* eta *doudies* bezalakoak (Yrizar 1992 : 222, 224). Beraz, forma hauen erabilera eremu jakin horretan kokatzen da, Arrankudiaga inguruan, Arrigorriagako aldaeraren hegoaldeko hizkeran hain zuzen ere. Honek ere, inguru horretako lekukoren batek ahoz emandako lekukotasunak izan zitezkeela pentsatzera eramán nau.

8. Ondorioak

Larramendiren gramatikako bizkaieraren azterketa egitea gauza konplexua dela zuzen-zuzenean ulertu eta ikusi dut lan hau egitean. Corpora biltzetik hau mugatu, egokitu eta azaltzera heldu arte, buru-hauste ugari izan ditut, sarritan zenbait zalantzaren erantzunik aurkitu gabe. Hala ere, Larramendiren gramatika honetako atal batzuen azterketa egiteareak gauza asko ikastera eramán nau.

Lan honen ondorioz, ikusi ahal izan dut zeinen zaila izan daitekeen corpus bat behar bezala egokitu eta mugatzea eta, nola ez, heldu zaigun euskarazko lehen gramatika argitaratuaren edukia ondo ulertzen saiatzea.

Larramendik darabilen terminologia egun dugunetik zeinen ezberdina den ere ikusi dut (§ 5.1), nahiz eta ez dudán gustatu izango litzaidakeen bezala xehatu lanaren muga hertsia direla eta. Nolanahi ere, zenbait argitasun eman ahal izan ditut nahiko ezezagunak ziren termino batzuen inguruan, hala nola bigarren pertsonak adierazteko moduak (§ 5.1.1), « simple » eta « compuesto » (§ 5.1.2) edota « promiscuo » (§ 5.1.3). Horrela, Larramendiren terminologiaren ulermenean pauso bat eman dugu, txikia bada ere.

Corpuseko ordena irregulartasun gutxi batzuek ere lekua izan dute lan honetan

(§ 5.2). Asko izan ez badira ere honatx ekarri ditudanak, gramatika beraren metodologian ezberdintasunak daudela ikusteko balio izan digute. Ene ustetan, azterketa sakonagoa beharko lukeen gai bat da hau, seguru aski askozaz ere gauza deigarri gehiago baitaude lan honetan.

Lekukotasun idatzien iturrien azterketari dagokionean, Kapanagaren edo Zubiaren lanak ezagutu eta hauetatik edan izana ez litzateke ezinezko. Hala ere, nahiz eta lekukotasun asko bat datozen, ezer ez da ziurra ; izan ere, hau baieztatzeko beharrezko diren akats bateragarririk, ez eta forma aski ezagunetatik ezberdinegia den ezer ere ez dut aurkitu.

Balizko idatzizko iturriak aurkitzeko asmoz egin dudana azterketak, ordea, gramatika lan honek ahozko lekukotasun bezala duen balioa ikustera eramana nau. Zenbait aldaera dialektalek, irregulartasunek edota kasu batzuetan forma bina emateak (9.1.1. taula : *déutse/déuzte* ; *déutsegue/déuztegue*, etab) ahozkotatasunaren zantzuak salatzen dituzte.

Hainbat adizki ez dira lekukotu idatzizko tradizioan eta hau euskal corpusak duen homogeneotasunari zor zaio. Hitanoko formetan igartzen da gehien homogeneotasun hori, batez ere femeninoetan ; erlijio testuak gehiengoa izan diren aldetik, nekez agertu baitira tradizioan zehar. Lazarraga eta Barrutiaren literatura testuetan ageri dira hitanoko formak batzuetan, erlijio testuetarik pixka bat aldentzen direnetan, alegia. Beraz, *don* (1.1.1. taula), *dozac, dozán* (1.2.1. taula) edo *déuztazac, déuztazan* (2.2.1. taula) bezalako forma arruntak ez lekukotzeak ez digu adierazten existitzen ez zirenik, agertzeko aukerarik izan ez zutela izan baino : Larramendiren gramatikan agertzea ahozkotatasunaren seinale dugu.

Horrez gain, argi ikusi dut eremu dialektal ezberdinetako datuak erabili zituela Larramendik bizkaierako atala osatzeko. Hainbat adizki geografikoki eremu murriztagokoak dira, hala nola, *névan, evan/evá/cenduan, cevan, guenduan* eta *even* (1.1.2. taula) edota *nou, noüe* (10.1.1. taula) eta *ou, oüe* (11.1.1. taula). Hauek aztertu eta kokatzeko saiakera txiki bat egin dut Yrizarren (1992) lana baliatuz, lehenak Bergara edo Markinako hizkeretan eta bigarrenak Arrankudiagan, Arrigorriagako aldaeraren hegoaldeko hizkeran kokatuz (§ 7).

Biziki interesgarri litzateke ahozko iturri posibleen inguruko benetako baieztapenak egin ahal izatea, dialekto honetako formen inguruko azterketen bidez

hauen berezitasunak ikustea ez ezik, Larramendiren bizitzaz pixka bat gehiago jakite aldera. Honek, zalantza gabe, gaurkoan egin dudan azterketa baino ikerketa sakonagoa mereziko luke, gai interesgarri eta baliagarri izan zitekeen eta, bestelako zenbait kontzeptu argitzeko ere. Hurrengo batean edo hurrengo batek gai hau gehiago landuko duen itzaropenez, atek zabal-zabalik geratzen dira.

Beste zenbait ekarpen egiteko aukera eman dit lan honek, hala nola, Larramendik dakarren *davez* (1.2.1. taula) forma pluralaren lehen lekukotasuna izan zitekeena dakart, zeinak pluraleko forma berri honen datazioaren aztarren oso garrantzizko bat ere ematen digun.

Larramendiren sorkuntzen inguruan, Urgellek (2016b) *dozute* eta *doute* (1.1.1. taula) gipuzkerazko paradigmatan oinarritutako analogiaz sorturiko formak zirela proposatu zuen, mendebaldean ageri ez den *-te* pluralgiledunak. Ildo beretik, *oute* forma ere (11.1.1.) hauen taldean kokatu dut gaurko honetan.

Horrez gain, errata bat bereizi eta zuzenketa bat ere proposatu dut : 3.2.1. taulako hitano maskulinoko *déuvaguz* formaren ondoan, femeninoko *déunagun* dugu 4.2.1. taulan. Femeninoko forma guztiak maskulinoak bezala erregulariki osatu bide dituen aldetik, errata bezala interpretatu eta *déunaguz* zuzenketa proposatu dut.

Jakina zen Larramendik izan zuen garrantzi eta eragina, baina lan honekin uste hori indartu dut. Berebiziko garrantzia izan du Larramendik ondo aipatu den ahalegin handi horregatik, berak ikusi baitzuen euskara gramatika tresna bezala baliagarria zela eta merezi zuela honen gramatizazio saiorik egitea. Euskaraz egin izan den lehen gramatika lanetarikoa dela kontuan harturik, irudika litezke Larramendik berak jasan izango zituen zailtasunak, ez baitzuen bere hizkuntzan jarraitu ahal izan zuen bestelako eredurik. Hori horrela, benetan lan izugarria egin zuela denok izan beharko genuke argi eta biziki estimatu beharko genuke egin zuen ahalegin izugarritzkoa, euskarari eman zion bultzada eta hizkuntza gutxietsi honekiko izan zuen fede hura, nahiz eta erruz kritikatu zuten. Gainera, berea zen euskalkia ez ezik, beste bi euskalkitako lekukotasunak ematera ausartu zen, euskararen balio eta aldakortasun dialektologikoa babestuz eta lekukotuz ahal izan zuen neurrian.

Azterketa honi bukaera emateko asmoz, ezin nezake aipatzeke utzi zenbat lan gelditzen den autore honen inguruko lanen azterketan, zenbat informazio dagoen jorratzeke, aztertu gabe. Harrigarri zait zeinen interes txikia piztu izan duen gramatika

lan honek, ikusiz autore beraren *Hiztegi Hirukoitzaren* azterketak zeinen ugariak izan diren honekin erkaturik. Hori horrela, lan handia dugula aurretik begi-bistakoa da. Bidea zabaltzeko asmotan eman dudan pauso honekin, hurrengo datozenei bidea erraztea eta informazio pixka bat gehiago ematea nuen helburu ; izan ere, oraindik asko da lantzeke dagoena.

9. Bibliografia

- Aginagalde, F.B. & Urgell, B., 2012, « XVI. mendeko mendebaldeko lekukotasun berri bat : Sarasketa hiztegitxo » , *ASJU XLVI-2* : 13-29.
- Altzibar, X., 1992, « Larramendi eta literatur-gipuzkera » in J.A. Lakarra, *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoain : Andoaingo Udala. Bilbo : Euskaltzaindia.
- Bilbao, G., Gómez, R., Lakarra, J.A., Manterola, J., Mounole, C., & Urgell, B., (arg), 2011, *Lazarraga eskuizkribua : edizioa eta azterketa (v1.2)* [online]. Vitoria-Gasteiz : UPV/EHU. Interneten eskuragarri : <<http://lazarraga.com>>.
- Gómez, R., 1991, « Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia » in J.A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoain : Andoaingo Udala. Bilbo : Euskaltzaindia.
- EKC, Euskara Institutua (UPV/EHU), 2013, *Euskal Klasikoen Corpora*. Interneten eskuragarri : <<https://www.ehu.eus/ehg/kc/>>.
- Lakarra, J. A., 1986, « Bizkaiera zaharra euskalkien artean », *ASJU XX-3* : 639- 682.
- , 1997b « Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz : konparaketa eta barneberreraiketa » *ASJU*, 31 : 537-616.
- Larramendi, M., 1729, *El Impossible Vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villagordo Alcaraz. Faksimilea : Hordago, Donostia-San Sebastián, 1979.
- , 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Donostia : Bartholomé Riesgo y Montero. Faksimilea : Txertoa, Donostia-San Sebastián, 1984.
- Real Academia Española, 1726-1739, *Diccionario de Autoridades*. Madril. Interneten eskuragarri : <<http://web.frl.es/DA.html>>.

- 2014, *Diccionario de la lengua española* (23.3. ed.), Madril. Interneten eskuragarri <<https://dle.rae.es/>>.
- Mounole, C & Gómez, R., 2018 « Euskara Zahar eta Klasikoa » in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra, *Euskararen Historia*, Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, 469-541.
- Mounole, C. & Lakarra, J.A., 2018, « Euskara Arkaikoa » in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra, *Euskararen Historia*, Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, 345-468.
- Oyharçabal, B., 1989 [1992], « Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729) » in R. Gómez & J.A. Lakarra, *Euskalaritzaren historiaz, I : XVI-XIX. Mendeak*, Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, 91-106.
- Unanue, J., 1991 « Manuel Larramendiren hirugarren mendeurrenean » in J.A. Lakarra, *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoain : Andoaingo Udala. Bilbo : Euskaltzaindia.
- Urgell, B., 2016b, « On the reliability of Larramendi's evidence ». (*ASJU*-n argitaratzeaz).
- , 2018, « Lehen Euskara Modernoa (1745-1891) », in I. Igartua, J. Gorrochategui & J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, 543-657.
- , 2019, *Euskararen Historia I* (eskuliburua). Gasteiz : UPV/EHU (argitaratzeaz).
- Yrizar, P. de, 1992, *Morfología del verbo auxiliar vizcaino : (estudio dialectológico) / Tomo I, Subdialecto oriental (Variedades de Marquina) Subdialecto occidental (Variedades de Guernica, Bermeo y Plencia)*. Bilbo : Bilbao Bizkaia Kutxa & Euskaltzaindia.
- , 1992, *Morfología del verbo auxiliar vizcaino : (estudio dialectológico) / Tomo II. Subdialecto Occidental (Variedades de Arratia, Orozco, Arrigorriaga y Ochandiano) Subdialecto de Guipuzcoa (Variedades de Bergara y Salinas)*. Bilbo : Bilbao Bizkaia Kutxa & Euskaltzaindia.

10. Corpora¹²

1.1.1. Taula (68)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>dot</i>	yo lo como	<i>dot</i> (Bet, Kap)
2s-erg 3s-abs		<i>doc, don, dózu</i>	lo comes	<i>dozu</i> (Bet, Kap, Zub)
3s-erg 3s-abs		<i>dou</i>	lo come	<i>dau</i> (Bet, Kap, Zub)
1p-erg 3s-abs		<i>dógu</i>	lo comemos	<i>dogu</i> (Bet, Kap, Zub)
2p-erg 3s-abs		<i>dózue, dozute</i>	lo comeis	<i>dozue</i> (Barr)
3p-erg 3s-abs		<i>dóüe, doute, dave</i>	lo comen	<i>dabe</i> (Leiz, Laz, Bet, Kap, Zub, OA)

1.1.2. Taula (68)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>névan</i>	yo lo comia	<i>neban</i> (Laz, Kap, Barr)
2s-erg 3s-abs		<i>evan, evá, cenduan</i>	lo comias	<i>eban</i> (Kap, Bet, Zub, Barr) <i>cenduan</i> (Kap).
3s-erg 3s-abs		<i>cevan</i>	lo comia	<i>ceban</i> (Laz)
1p-erg 3s-abs		<i>guenduan</i>	lo comiamos	<i>guenduan</i> (Kap)
2p-erg 3s-abs		<i>cenduan</i>	lo comiais	<i>cenduan</i> (Kap)
3p-erg 3s-abs		<i>even</i>	lo comian	<i>eben</i> (Laz, Kap, Zub)

12 Honako laburdurez izendatu ditut autoreak : Barr = Barrutia ; Ber = Beriain ; Bet = Betolaza ; Kap = Kapanaga ; Laz = Lazarraga ; Leiz = Leizarraga ; OA = Otxoa Arin ; Oih = Oihenart ; Pv = Pouvreau ; Zub = Zubia.

1.1.1.2. Taula (71-72)¹³

Agintera			Beste testu batzuk
Orainaldia			
	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 3s-abs	<i>jan-eguic</i>	comelo tu	<i>eguic</i> (Laz)
2s-erg 3s-abs	<i>jan-eguín</i>		<i>eguizu</i> (Laz, Kap)
2s-erg 3s-abs	<i>jan-eguizu</i>		
3s-erg 3s-abs	<i>jan begui</i>	comalo aquel y usted.	<i>begui</i> (Laz, Kap, Barr)

1.2.1 Taula (89)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>dódaz</i>	yo los como	<i>dodazala</i> (Kap)
2s-erg 3p-abs		<i>dozac, án, dózuz</i>	tu los comes	-
3s-erg 3p-abs		<i>dituz</i>	aquel los come	<i>dituz</i> (Kap) <i>dituzala, dituzanen</i> (Zub)
1p-erg 3p-abs		<i>doguz</i>	nosotros los comemos	<i>doguz</i> (Kap) <i>doguzan</i> (Zub)
2p-erg 3p-abs		<i>dozuez, dozuz</i>	vosotros los comeis	-
3p-erg 3p-abs		<i>davez, dituez</i>	aquellos los comen	- <i>dituez</i> (Kap)

1.2.2. Taula (89)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	

¹³ Paradigma honi dagokionean, Larramendik testuan egiten duen aipamen bati jarraiki eratu dut. Ez du paradigma bere horretan ematen (Larramendi 1729 : 71-72).

1s-erg 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>nevazan,</i> <i>nituzan</i>	yo los comia	-
2s-erg 3p-abs		<i>evazá, ituzan,</i> <i>cenduzan</i>	los comias	-
3s-erg 3p-abs		<i>evazan</i>	los comia	-
1p-erg 3p-abs		<i>guenduzan</i>	los comiamos	<i>guenduzan</i> (Kap)
2p-erg 3p-abs		<i>cenduzaen</i>	los comiais	-
3p-erg 3p-abs		<i>eveezan,</i> <i>cituezan</i>	los comian	<i>zituezan</i> (Kap, Zub)

2.1.1. Taula (93)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>déuztac, an,</i> <i>déuztazu</i>	me lo comes	<i>deustak</i> (Laz) <i>deustazu</i> (Laz, Kap)
3s-erg 1s-dat 3s-abs		<i>déuzut</i>	me lo come	<i>deuzut</i> (Laz) <i>deusut</i> (Laz, Kap, Barr)
2p-erg 1s-dat 3s-abs		<i>déuztazue, zu</i>	me lo comeis	<i>deustazu</i> (Laz, Kap)
3p-erg 1s-dat 3s-abs		<i>déuztee</i>	me lo comen	-

2.1.2. Taula (96-97)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>cuztaá,</i> <i>ceuztan</i>	me lo comias	<i>zeustan</i> (Laz)
3s-erg 1s-dat 3s-abs		<i>euztan</i>	me lo comia	<i>eustan</i> (Laz) <i>eustana</i> (Kap)
2p-erg 1s-dat 3s-abs		<i>ceuztan</i>	me lo	<i>zeustan</i> (Laz)

abs			comiais	
3p-erg 1s-dat 3p-abs		<i>euzten</i>	me lo comian	<i>eusten</i> (Laz)

2.2.1. Taula (96)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>déuztazac, an, tazuz</i>	me los comes	<i>deustak</i> (Laz) <i>deustazuzan</i> (Kap)
3s-erg 1s-dat 3p-abs		<i>déuztaz</i>	me los come	-
2p-erg 1s-dat 3p-abs		<i>déuztazuz</i>	me los comeis	<i>deustazuzan</i> (Kap)
3p-erg 1s-dat 3p-abs		<i>déuztaz</i>	me los comen	<i>deustezala</i> (Kap)

2.2.2. Taula (96-97)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1s-dat 3p-abs	<i>Jatě</i>	<i>éuztazaa, an, ceuztazan</i>	tu me los comias	-
3s-erg 1s-dat 3p-abs		<i>éuztazan</i>	me los comia	-
2p-erg 1s-dat 3p-abs		<i>céuztazan</i>	vosotros me los comiais	-
3p-erg 1s-dat 3p-abs		<i>éuztazan</i>	aquellos me los comian	-

3.1.1. Taula (*Hi* maskulinoa) (99-100)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz	Forma	Erdarazko	

	partizipioa	gramatikala	itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3s-abs	<i>Jatě</i>	<i>déuvat</i>	yo te lo como	<i>deusat</i> (Laz, Bet, Kap)
3s-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déuzc</i>	te lo come aquel	-
1p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déuvagu</i>	nosotros te lo comemos	<i>deusagu</i> (Kap)
3p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déuve</i>	aquellos se lo comen	<i>deuse</i> (Kap)

3.1.2. Taula (Hi maskulinoa) (100)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>néuva</i>	yo te lo comia	-
3s-erg 2s-dat 3s-abs		<i>éuva</i>	él te lo comia	<i>eusan</i> (Laz, Barr, Kap) <i>eusazala</i> (Zub)
1p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>guéuva</i>	nosotros te lo comiamos	-
3p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>éuvea</i>	aquellos te lo comian	-

3.2.1. Taula (Hi maskulinoa) (102)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>déuvadaz</i>	yo te los como	-
3s-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déuvaz</i>	él te los come	<i>deusaz</i> (Kap)
1p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déuvaguz</i>	nosotros te	-

abs			los comemos	
3p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déuvez</i>	aquellos te los comen	<i>deusezanak</i> (Kap)

3.2.2. Taula (Hi maskulinoa) (102)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>néuvaza</i>	yo te los comia	-
3s-erg 2s-dat 3p-abs		<i>éuvaza</i>	él te los comia	-
1p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>guéuvaza</i>	nosotros te los comiamos	-
3p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>éuveaza</i>	aquellos te los comian	-

4.1.1. Taula (Hi femeninoa) (104)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>déumat,</i> <i>déunat</i>	yo te lo como	-
3s-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déun</i>	el te lo come	-
1p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déumagu,</i> <i>déunagu</i>	te lo comemos	-
3p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déune, déumee</i>	te lo comen	-

4.1.2. Taula¹⁴ (Hi femeninoa) (104)

14 Taula hau Larramendik ematen duen aipamen bati jarraiki egin dut (Larramendi 1729 : 104).

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>néuvaza</i>	yo te los comia	-
3s-erg 2s-dat 3s-abs		<i>éuvaza</i>	él te los comia	-
1p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>guéuvaza</i>	nosotros te los comiamos	-
3p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>éuveaza</i>	aquellos te los comian	-

4.2.1. Taula (Hi femeninoa) (106)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>déunadaz</i>	yo te los como	-
3s-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déunaz</i>	aquel te los come	-
1p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déunagun</i>	nosotros te los comemos	-
3p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déunez</i>	aquellos te los comen	-

4.2.2. Taula (Hi femeninoa) (106)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3p-abs		<i>neunaza</i>	te los comia yo	-

3s-erg 2s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>éunaza</i>	él te los comia	-
1p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>guéunaza</i>	nosotros te los comiamos	-
3p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>éunezea</i>	aquellos te los comian	-

5.1.1. Taula (109)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>déutsut</i>	yo te lo como	-
3s-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déutsu</i>	él te lo come	-
1p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déutsugu</i>	nosotros te lo comemos	-
3p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>déutsue</i>	aquellos te lo comen	-

5.1.2. Taula (109)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>néutsun</i>	yo te lo comia	-
3s-erg 2s-dat 3s-abs		<i>éutsun</i>	él te lo comia	-
1p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>guéuntsun</i>	nosotros te lo comiamos	-
3p-erg 2s-dat 3s-abs		<i>éutsuen</i>	aquellos te lo comian	-

5.2.1. Taula (111)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>déutsudaz</i>	yo te los como	-
3s-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déutsuz</i>	él te los come	-
1p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déutsuguz</i>	nosotros te los comemos	-
3p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>déutsuez</i>	aquellos te los comen	-

5.2.2. Taula (111)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>néutsuzan</i>	yo te los comia	-
3s-erg 2s-dat 3p-abs		<i>éutsuzan</i>	él te los comia	-
1p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>guéuntsuzan</i>	te los comiamos	-
3p-erg 2s-dat 3p-abs		<i>éutsuezan</i>	te los comian	-

6.1.1. Taula (114)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3s-dat 3s-abs		<i>déutsat</i>	yo se lo como	-

2s-erg 3s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>deutsác, an, azu</i>	tu se lo comes	-
3s-erg 3s-dat 3s-abs		<i>déutsa, deutso</i>	aquel se lo come	-
1p-erg 3s-dat 3s-abs		<i>déutsagu</i>	nosotros se lo comemos	-
2p-erg 3s-dat 3s-abs		<i>déutsazue</i>	vosotros se lo comeis	-
3p-erg 3s-dat 3s-abs		<i>déutse</i>	aquellos se lo comen	-

6.1.2. Taula (115)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3s-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>néutsan</i>	yo se lo comia	-
2s-erg 3s-dat 3s-abs		<i>éutsaa, euntsa, euntsazun</i>	se lo comias	-
3s-erg 3s-dat 3s-abs		<i>éutsan</i>	se lo comia	-
1p-erg 3s-dat 3s-abs		<i>guéuntsan, eutsagun</i>	se lo comiamos	-
2p-erg 3s-dat 3s-abs		<i>céutsan, eutsazun</i>	se lo comiais	-
3p-erg 3s-dat 3s-abs		<i>éutsen</i>	aquellos se lo comian	-

6.2.1. Taula (119)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	

1s-erg 3s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>déutsadaz</i>	yo se los como à aquel	-
2s-erg 3s-dat 3p-abs		<i>déutsazac, an, zuz</i>	tu se los comes	-
3s-erg 3s-dat 3p-abs		<i>déutsaz</i>	él se los come	-
1p-erg 3s-dat 3p-abs		<i>déutsaguz</i>	nosotros se los comemos	-
2p-erg 3s-dat 3p-abs		<i>déutsazuz</i>	vosotros se los comeis	-
3p-erg 3s-dat 3p-abs		<i>déutsez</i>	aquellos se los comen	-

6.2.2. Taula (119)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3s-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>néutsazan</i>	yo se los comia	-
2s-erg 3s-dat 3p-abs		<i>éutsaza, éuntsaza, céutsazan</i>	tu se los comias	-
3s-erg 3s-dat 3p-abs		<i>éutsazan</i>	él se los comia	-
1p-erg 3s-dat 3p-abs		<i>guéuntsazan</i>	se los comiamos	-
2p-erg 3s-dat 3p-abs		<i>céutsazan</i>	vosotros se los comiais	-
3p-erg 3s-dat 3p-abs		<i>eutsezan</i>	aquellos se los comian	-

7.1.1. Taula (122)

Orainaldia	
------------	--

	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	Bestelako testuak
2s-erg 1p-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>déuzcuc, un, cuzu</i>	tu nos lo comes	-
3s-erg 1p-dat 3s-abs		<i>déuzcu</i>	él nos lo come	<i>deuskuna</i> (Bet) <i>deusku</i> (Laz, Kap)
2p-erg 1p-dat 3s-abs		<i>déuzcun</i>	vosotros nos lo comeis	-
3p-erg 1p-dat 3s-abs		<i>déuzcue, cuve</i>	nos lo comen	<i>deuskue</i> (Laz, Kap)

7.1.2. Taula (122)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1p-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>éuzcuva, éuzcuma, ceuzcun</i>	tu nos lo comias	-
3s-erg 1p-dat 3s-abs		<i>éuzcun</i>	él nos lo comia	<i>euskun</i> (Kap)
2p-erg 1p-dat 3s-abs		<i>céuzcun</i>	vosotros nos lo comiais	-
3p-erg 1p-dat 3s-abs		<i>éuzcuen</i>	aquellos nos lo comian	-

7.2.1. Taula (124)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1p-dat 3p-abs		<i>déuzcuzac, an, cuzuz</i>	nos los comes	-
3s-erg 1p-dat 3p-abs		<i>déuzcuz</i>	aquel nos los come	<i>deuskuzanak</i> (Bet) <i>deuskuzan</i> (Kap)

	<i>Jaten</i>			
2p-erg 1p-dat 3p-abs		<i>déuzcuzuz</i>	vosotros nos los comeis	-
3p-erg 1p-dat 3p-abs		<i>déuzcuvez</i>	aquellos nos los comen	-

7.2.2. Taula (125)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1p-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>éuzcuza,</i> <i>céuzcuzan</i>	tu nos los comias	-
3s-erg 1p-dat 3p-abs		<i>éuzcuzan</i>	aquel nos los comia	<i>euskuzan</i> (Kap)
2p-erg 1p-dat 3p-abs		<i>céuzcuzan</i>	vosotros nos los comiais	-
3p-erg 1p-dat 3p-abs		<i>éuzcuezan</i>	aquellos nos los comian	-

8.1.1. Taula (127)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2p-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>déutsuet</i>	yo os lo como	-
3s-erg 2p-dat 3s-abs		<i>déutse</i>	él os lo come	-
1p-erg 2p-dat 3s-abs		<i>déutsugue</i>	nosotros os lo comemos	-
3p-erg 2p-dat 3s-abs		<i>déutsue</i>	aquellos os lo comen	-

8.1.2. Taula (127)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2p-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>néuts[u]en</i>	yo os lo comia	-
3s-erg 2p-dat 3s-abs		<i>éutsuen</i>	él os lo comia	-
1p-erg 2p-dat 3s-abs		<i>guéuntsuen</i>	nosotros os lo comiamos	-
3p-erg 2p-dat 3s-abs		<i>éutsuen, ven</i>	aquellos os lo comian	-

8.2.1. Taula (130)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2p-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>déutsuedaz</i>	yo os los como	-
3s-erg 2p-dat 3p-abs		<i>déutsuez</i>	él os los come	-
1p-erg 2p-dat 3p-abs		<i>déutsuguz</i>	nosotros os los comemos	-
3p-erg 2p-dat 3p-abs		<i>déutsuez</i>	aquellos os los comen	-

8.2.2. Taula (130)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2p-dat 3p-abs		<i>néutzuzan</i>	yo os los comia	-
3s-erg 2p-dat 3p-		<i>éutzuezan</i>	aquel os los	-

abs	<i>Jaten</i>		comia	
1p-erg 2p-dat 3p-abs		<i>guéuntzuezan</i>	os los comiamos	-
3p-erg 2p-dat 3p-abs		<i>éutzuezan</i>	aquellos os los comian	-

9.1.1. Taula¹⁵ (133)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3p-dat 3s-abs	<i>Jaten</i>	<i>déutset / déuztec</i>	yo se lo como à ellos	-
2s-erg 3p-dat 3s-abs		<i>déutsec, en, déutsezue / déuztec, en, déuztezue</i>	tu se los comes	-
3s-erg 3p-dat 3s-abs		<i>déutse / déuzte</i>	aquel se lo come	-
1p-erg 3p-dat 3s-abs		<i>déutsegue / déuztegue</i>	nosotros se lo comemos	-
2p-erg 3p-dat 3s-abs		<i>déutsezue / déuztezue</i>	vosotros se lo comeis	-
3p-erg 3p-dat 3s-abs		<i>déutse / déuzte</i>	aquellos se lo comen	-

9.1.2. Taula¹⁶ (134)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3p-dat 3s-		<i>néutsen</i>	yo se lo	-

15 Barratxo batez bereiztutako bigarren formak Larramendik paradigma eman eta gero egiten duen aipamen batetik hartu ditut (Larramendi 1729 : 133).

16 Barratxo batez bereiztutako bigarren formak paradigma eman eta gero egiten duen aipamen batetik hartu ditut (Larramendi 1729 : 137).

abs	<i>Jaten</i>		comia à ellos	
2s-erg 3p-dat 3s-abs		<i>éuztia,</i> <i>céuzten</i>	tu se lo comias	-
3s-erg 3p-dat 3s-abs		<i>éuzten</i>	el se lo comia	-
1p-erg 3p-dat 3s-abs		<i>guéutzen</i>	nosotros se lo comiamos	-
2p-erg 3p-dat 3s-abs		<i>céuzten /</i> <i>ceutzen</i>	vosotros se lo comiais	-
3p-erg 3p-dat 3s-abs		<i>éuzten /</i> <i>eutzen</i>	aquellos se lo comian	-

9.2.1. Taula¹⁷ (137)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3p-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>déutsedaz /</i> <i>déuztedaz</i>	yo se los como à ellos	-
2s-erg 3p-dat 3p-abs		<i>déutsezac, an,</i> <i>zuz / déuztezac,</i> <i>an, zuz</i>	tu se los comes	-
3s-erg 3p-dat 3p-abs		<i>déutsez /</i> <i>déuztez</i>	aquel se los come	-
1p-erg 3p-dat 3p-abs		<i>déutseguz /</i> <i>déuzteguz</i>	nosotros se los comemos	-
2p-erg 3p-dat 3p-abs		<i>déutsezuz /</i> <i>déuztezuez</i>	vosotros se los comeis	-
3p-erg 3p-dat 3p-abs		<i>déutsez /</i> <i>déuztez</i>	aquellos se los comen	-

¹⁷ Barratxo batez bereiztutako bigarren formak paradigma eman eta gero egiten duen aipamen batetik hartu ditut (Larramendi 1729 : 137).

9.2.2. Taula (137-138)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 3p-dat 3p-abs	<i>Jaten</i>	<i>néutzezan</i>	yo se los comia à ellos	
2s-erg 3p-dat 3p-abs		<i>éutzezea, céutzezan</i>	tu se los comias	-
3s-erg 3p-dat 3p-abs		<i>éutzezan</i>	aquel se los comia	-
1p-erg 3p-dat 3p-abs		<i>guéutzezan</i>	nosotros se los comiamos	-
2p-erg 3p-dat 3p-abs		<i>céuztezan</i>	vosotros se los comiais	-
3p-erg 3p-dat 3p-abs		<i>éuztezan</i>	aquellos se los comian	-

10.1.1. Taula (141)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1s-abs	<i>Jaten</i>	<i>nóc, nón, nózu</i>	tu me comes à mi	<i>nok</i> (Barr) <i>nozun</i> (Laz) <i>nozu</i> (Barr)
3s-erg 1s-abs		<i>nou</i>	aquel me come	-
2p-erg 1s-abs		<i>nozue</i>	vosotros me comeis	-
3p-erg 1s-abs		<i>noïe, naïe</i>	aquellos me comen	-

10.1.2. Taula (142)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1s-abs	<i>Jaten</i>	<i>ninduc, duzun</i>	tu me comias	<i>ninduzun</i> (Laz) <i>ninduzuna</i> (Kap)
3s-erg 1s-abs		<i>ninduan</i>	aquel me comia	<i>ninduan</i> (Laz)
2p-erg 1s-abs		<i>ninduzun</i>	vosotros me comiais	<i>ninduzun</i> (Laz) <i>ninduzuna</i> (Kap)
3p-erg 1s-abs		<i>ninduven</i>	aquellos me comian	-

11.1.1. Taula (144)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-abs	<i>Jaten</i>	<i>ot, aut</i>	yo te como à ti	<i>aut</i> (Oih, Pv, Leiz)
3s-erg 2s-abs		<i>ou, au</i>	aquel te come	-
1p-erg 2s-abs		<i>ougu, agu</i>	nosotros te comemos	-
3p-erg 2s-abs		<i>oute, oiie</i>	aquellos te comen	-

11.1.2. Taula (144)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-abs		<i>induva</i>	yo te comia	-
3s-erg 2s-abs		<i>induva</i>	aquel te comia	-

1p-erg 2s-abs	<i>Jaten</i>	<i>induguva</i>	nosotros te comiamos	-
3p-erg 2s-abs		<i>induvea</i>	aquellos te comian	-

12.1.1. Taula¹⁸ (146)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-abs	<i>Jaten</i>	<i>záitudaz / záitut</i>	yo te como	<i>zaitudaz</i> (Laz, Kap) <i>zaitut</i> (Laz)
3s-erg 2s-abs		<i>záituz / záitu</i>	aquel te come	<i>zaituz</i> (Kap, Barr)
1p-erg 2s-abs		<i>záituguz / záitugu</i>	nosotros te comemos	-
3p-erg 2s-abs		<i>záituve / záitute</i>	aquellos te comen	-

12.1.2. Taula (146)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2s-abs	<i>Jaten</i>	<i>cindudazan</i>	yo te comia	-
3s-erg 2s-abs		<i>cinduzan</i>	aquel te comia	-
1p-erg 2s-abs		<i>cinduguzan</i>	nosotros te comiamos	-
3p-erg 2s-abs		<i>cinduezan</i>	aquellos te comian	-

18 Barratxo batez bereiztutako bigarren formak paradigma eman eta gero egiten duen aipamen batetik hartu ditut (Larramendi 1729 : 146). Aipamen honetan gipuzkeraz egiten diren bezala ere egiten direla adierazten du, hortaz, bigarren formak aurrerago emandako gipuzkerazko paradigmakoak dira (Larramendi 1729 : 144).

10.2.1. Taula (148)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1p-abs	<i>Jaten</i>	<i>gozac, an, gozuz</i>	tu nos comes	-
3s-erg 1p-abs		<i>gaituz</i>	aquel nos come	<i>gaituz</i> (Kap)
2p-erg 1p-abs		<i>gozuz</i>	vosotros nos comeis	-
3p-erg 1p-abs		<i>gaituez</i>	aquellos nos comen	<i>gaituez</i> (Kap)

10.2.2. Taula (148)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
2s-erg 1p-abs	<i>Jaten</i>	<i>guinduz, guinduzuzan</i>	tu nos comias	<i>ginduzana</i> (Kap)
3s-erg 1p-abs		<i>guinduzan</i>	aquel nos comia	<i>ginduzana</i> (Kap)
2p-erg 1p-abs		<i>guinduzazan</i>	vosotros nos comiais	-
3p-erg 1p-abs		<i>guinduezan</i>	aquellos nos comian	-

12.2.1. Taula (150)

Orainaldia				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2p-abs	<i>Jaten</i>	<i>zaituedaz</i>	yo os como	-
3s-erg 2p-abs		<i>zaituez</i>	aquel os come	<i>zaituez</i> (Laz)

1p-erg 2p-abs		<i>zaitueguz</i>	nosotros os comemos	-
3p-erg 2p-abs		<i>zaituve</i>	aquellos os comen	-

12.2.2. Taula¹⁹ (150)

Lehenaldi burutugabea				Bestelako testuak
	Aditz partizipioa	Forma gramatikala	Erdarazko itzulpena	
1s-erg 2p-abs	<i>Jaten</i>	<i>cíndudazaen / záitudaz</i>	yo os comia	<i>zaitudaz</i> (Laz, Kap)
3s-erg 2p-abs		<i>cínduzden / záituz</i>	aquel os comia	<i>zinduztena</i> (Ber) <i>zaituz</i> (Kap, Barr)
1p-erg 2p-abs		<i>cínduguzzaen / záituguz</i>	nosotros os comiamos	-
3p-erg 2p-abs		<i>cínduezaen / záituve</i>	aquellos os comian	-

¹⁹ Barratxo batez bereiztutako bigarren formak paradigma eman eta gero egiten duen aipamen batetik hartu ditut (Larramendi 1729 : 150).